

KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeak gastu batzuk dakartza, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Negozioaren kostuak kostu finkoetan eta kostu aldakorretan sailkatu ditugu.



Kostu finkoak

Kostu finkoak denbora-tarte batez konstante mantentzen direnak dira, ekoizpen-eskaeraren aldakuntza gorabehera. Gure enpresaren kostu finkoak hauek izango dira:

- Establezimenduaren alokairua
- Linea telefonikoa
- Argia (zati finkoa)
- Gasa (zati finkoa)
- Internet zerbitzua (Wifi)
- Soldatak (edozein enpresaren kosturik garestienak)
- Publizitatea
- Web orria mantentzea
- Altzariak (mantenimendua)
- Kapital fisikoa
- Lokalaren aseguruua
- Langileen gizarte-segurantza
- Zerbitzu profesionalak (informatikaria, kontabilitate-aholkularia...)
- Garraioak (eskaerak)
- Zergak

Kostu aldakorrak

Kostu aldakorrak aldatzen dira kontsumoaren arabera. Kostu mota hau ez da hileroko berdina izango, orduan, hauek ordaintzeko behar dugun diru kantitatea moldagarria izan beharko da.

- Argia (kontsumoaren arabera)
- Gasa (kontsumoaren arabera)
- Saltzen ditugun produktuen eskaeraren arabera hainbat kostu aldatuko dira (garraioa...).
- Kobratutako gastuak (TPVko komisioak, Pay Pal, salmenta-plataformak...).

Gure hasierako inbertsioa 15.500 eurokoa izan denez, 7.000 euro inguru gastatuko ditugu kostu finkoen eta erreformen artean; eta



beste 6.000 euroak publizitatean, web-orrian, komunikazio- eta banaketa-kanaletan eta kostu aldakorretan inbertituko dira. Diru gehiago beharko balitz (ahalik eta gehien), mailegu bat eskatuko zaio finantza-erakunderen bati gastu horiek estaltzeko. Kostu aldakorren barruan, zer zerga ezarri behar diren ere finkatuko ditugu.